

Philosophy of language

ALEXANDER MILLER

London: UCL Press, 1998, xviii+348 or.

Millerrek liburu honetan hizkuntzaren filosofian gaur egun dauden egoera, arazo eta erantzunez kontu ematen du. Zentzuaren hariari eusten dio hizkuntzaren filosofian gertatu den eztabaidarik garrantzitsuenaren bidezidoretatik ibiltzeko. Zentzuari eustean esentzia harrapatzeko nahia dago, osotasunari buruzko galdera eta erantzun egokiak egitean, hitz batez, metafisikaz aritzeko nahia. Metafisikari buruzko eztabaida amaitzeko bidea nondik etor daitekeen erakusten du liburuaren azkenean. XX. mendean giza aktibitatea azaltzeko baliozkoak diren argumentuen bilakaeran eragite handiena izan duten hipotesiak modu laburrean planteatzen dira.

Liburuak bederatzi kapitulu ditu. Lehenengoan izan ezik beste kapitulu guztietan zentzuari buruz hitz egiten du, kapituluko tituluetan ere zentzu hitza erakusten du liburuiko gaia zein den ondo azpimarratzeko. Lehenengo kapituluan zentzuaz hitz egiten ez badu ere, zentzuaren nozioa sortzeko baldintzen azalpena ematen du, balio semantikoaren azalpen sistematikoa, lan biribila eginez. Bigarren kapituluan zentzuaren nozioa aurkezteaz gain, nozioak dituen arazoak aurkezten ditu. Hirugarrenean zentzuaz hitz egiteko irizpide semantiko baten bilaketa deskribatzen du. Laugarren eta bosgarren kapituluetan zentzuaren eszeptikotasunak ekartzen dituen arazo eta erantzunez ari da. Seigarren kapituluan, aurreko bi kapituluetan agertutako zalantza gainditzeko erantzuna bilatzen du. Eta azkeneko hiru kapituluetan, kapitulu bakoitzean ikuspegi ezberdin bat nagusituz, hizkuntzazko esanahiaren eta adimenezko edukiaren arteko erlazioari nola heltzen zaion erakusten du.

Lehenengo kapituluan Fregek filosofian baliozko argumentuak bilatzeko metodoa nola eraiki zuen deskribatzen du. Esanahiaren kontzeptua baino material eta diziplina langarriago baten gainean dihardu, hala, egiaren nozioa, nola, logika formala. Logika formalean argumentuen baliozkotasuna

frogatzeko metodorik badagoenez, filosofiaren euskarri den hizkuntza naturala hizkuntza logiko batera itzultzen du, proposizioen logikara. Itzulpena zilegi bada, hizkuntza naturalak duen metodo gabezia betetzea posible da. Proposizioen logika nahikoa ez bada, logika hori aberastea da estrategia, aberastearen haritik sortzen diren arazoak konponduz, hasiera puntu gisa bide erraza ez bada ere egingarria da. Logika horretan proposizioentzat balioz-kotasuna aurkitzeko egibalioren metodoa dago. Esaldi osoaren egi balioa bilatzea ezinezkoa denean, osagarritasunaren printzipioak osagaien egi balioren bilkurak ematen du bilaketaren erantzuna. Adibidez, izen propioen erreferentearen existentzia frogatuz eta argumentuen lehenengo mailako funtzioen eragiketa eginez lortzen da esaldi osoaren egi balioa. Fregek balio semantikoaren lehen nozio sistematikoa osagarritasunaren eta ordezkagarritasunaren, balio berdineko osagai biren ordezkapena baliozkoa izatearen, printzipioen gainean eratzen du. Logika formalaren printzipio hauek ez betetzea arazo bihurtuko da ondorengo esanahiaren azalpenetan.

Bigarren kapituluan balio semantikoaren azalpenak dituen hiru arazoak konpontzeko bi saiakera aurkezten ditu: Fregerena eta Russellena. Arazoak: erreferentzia gabeko izenen egi balioa zein den ezin da jakin erreferentziak ezartzen duelako egi balioa; usteen testuinguruetan ez da ordezkagarritasunaren printzipioa betetzen eta sinonimoak balio semantikoaren definizioaren arabera ez dira baliozko argumentuak. Fregek balio semantikoaren nozio sistematikoaren arazoak konpontzeko zentzuaren nozioa asmatu zuen osagarritasunaren eta ordezkagarritasunaren printzipioekin bateragarri formulatuz. Zentzuaren nozioak tonua eta indarraren osagaiekin azalpen indarrean irabazten du. Fregek Lockeren kontra egin zuen zentzua pentsamendu gisa formulatzean, zentzuaren objektibotasuna bilatuz. Fregeren azalpenak erreferentzia gabeko izenen arazoa konpontzen badu ere, ez ditu beste arazo biak konpontzen, eta gainera, Lockeri leporatutako huts berdinean (adierazpen bat ulertzea ideia batekin lotzea da) erortzen da zentzuaren aldaerak onartzean. Russellek zentzuaren nozioari eraso egiten dio eta beste modu batera konpondu nahi ditu hiru arazook. Estrategia gisa deskribapen zehaztuak zein izen propioak ukatzen ditu, bigarren mailako funtzioak tresna gisa hartuz. Zentzua bezalako azaleko noziorik formulatzea beharrezkoa ez dela erakutsi nahi du, argumentuak funtzio gisa hartuz arazoak konpondu nahi ditu. Esanahiaren kokapena erreferentzian egotetik objektuak aurkezteko modura aldatzen du. Funtzioaren nozioak azalpen primario edo sekundario nozioekin aberastuz logika formalarekin bateraezinak diren planteamenduak saihestea lortzen du. Baina, Russellen azalpena, Millerren aburuz, ez da Fregerena baino hobea, ez baititu usteen testuinguruetako arazoa eta sinonimoen infor-matibotasunik eza konpontzen.

Hirugarren kapituluan, esanahiaren teoria bat eratzeke lehen saiakeren ostean, positibisten irizpide sistematiko indartsu baten deskribapena, egiaz-tapenarena, egiten du autoreak. Positibistentzat esanahia egiaztagarria izate-

ak ematen dio balioa. Baina, filosofiaren diziplinak ez du beste zientzia batzuek izan dezaketen egiaztagarritasun maila bera, analitikotasunaren eremuan denbora luzea egon den diziplina baita. Carnapen barne eta kanpo galderen ekarpenak nominalista eta platoniarren arteko eztabaida tradizionala gaindituko du, barne galderetan ez dagoelako eztabaidatzerik eta kanpo galderak esanahirik ez dutelako. Ayerren etikaren emoziozko teoria holismo partzial bezala aurkeztzen du Millerrek ez delako eremu guztietan holista. Ayerren kasuan egiaztagarria ez dena zentzu gabekoa denarekin berdintzen du —berdinketa horretan kontzeptu etikoei eduki dezaketen edozein balio ukatzen duen inplikazioa onartu nahi ez duenez— emoziozko esanahia dutela, sasiesanahia, deklaratu. Ez du irizpide sistematikorik erabiltzen zentzu gabekoak eta emoziozko esanahidunak ezberdintzeko. Beraz, Ayerren metodoa egiaztagarritasunetik ateratzeaz gain filosofiazko kontuez aritzeko balioz-kotasun arazoak ditu.

Zentzuaren eszeptikotasuna deituriko laugarren kapituluari, Quine aurkeztzen du. Quinek, positibismoaren oinarriak suntsitzen saiatzearekin batera, esanahiaren nozioa bera ere arriskuan jartzen du eta adierazpen primitibo gehiagi proposatzen ditu. Quinek batetik, Kanten eta Fregeren analitikotasun nozioak kritikatzeko sinonimo nozioan oinarritzen delako eta argumentatze zirkular itxia egiten dutelako; eta bestetik, positibisten murritzapenaren nozioa (esanahia duen oro logikoki formulagarria den esperientzia batekin egiaztatu daitekeela) kritikatzeko. Millerrek Quineren kritika hau kontzeptuen definizio bat modu ez-zirkularrean egin behar den suposamen sokratikotik datorrela salatzen du. Horrelako aipamen laburrekin —eta beste aipamen batekin, non antierrealisten logika formala berrikusteko aipamena egiten duen— argumentatzearen balioz-kotasunaren eztabaida handi bat (logika formala vs aplikaziozko logika dialektikoa) behar beste tratatu gabe uzten du, zentzuari eutsiz. Quineren holismo semantikoa egokia bada ordurainoko saiakera semantiko guztiek azalpen arazoak izateaz gain, justifikazio gabezia sufritzen dutela erakusten du, baliozko azalpena eremu pragmatikora mugatzen delarik. Millerrek, Wrighten kritika aurkeztuz, Quineren azalpena infinitura zabaltzen dela erakusten du, esperientziaren nozioak esperientzia bera errebisatzera eramaten baitu. Hala ere, Quineren azalpenaren hutsek ez diote zentzuaren eszeptikotasunaren argumentuei indarra kentzen, itzultzaile erradikalarekin itzulpenaren manual bat egiteko fundamentazio nahikorik ez dagoela erakutsi zuelako. Azpiko argumentuan itzulpenaren teoria eta esanahiaren teoriaren determinaziorik ezaren analogia egin zuen; Evansek teoria biak egiteko baldintza ezberdinak erakutsiz analogiaren ezegokitasuna agerian utzi zuen, batez ere, esanahiaren teoria egiterakoan hizkuntza axiomatikoa dela erakutsiz. Quinek gaineko argumentuan itzulpenaren eta behagarritasunaren determinaziorik ezaren analogia egin zuen; baina alor bietan determinazio falta egon arren, Chomskyk eta Hookwayk analogia ez dela baliozkoa adierazi zuten, adibidez, determinazio falta eremu fisikoan teoria bat onartu ostean

desagertzen delako, ez ordea itzulpenaren eremuan. Hala ere, Kripkek azpimarraturikoa, jarreraren oinarria (esanahiaren determinaziorik eza) ez dela kaltetua izan, indarrean dago, Quineren jarrerazko azalpenaren kontra argumentu zuzenik eman ez delako.

Hizkuntzaren filosofian oinarrizkoak diren esanahia, ulermen eta intentsio nozioen inguruko ezaugarrietatik abiatuz eztabaida ugari egon dira erregela edo erregela-jarraitze azalpenaren interpretazioak formulatuz edota formulazio horien ondorioei erantzunez. Hori dela eta, kontu horri bosgarren eta seigarren kapitulua eskaintzen dizkio. Kapitulu honen oinarria Wittgensteiningan dago, zehazki Kripkek autore horretaz egiten duen interpretazioan. Interpretazio horrek ondorio eszeptikora eramaten du. Beste filosofo batzuk erregela-jarraitzearen interpretazio ezberdina egiten dute, eta nozio hori norbanakoan oinarritzea ezegokia dela argudiatzen duten arren, ez dute erregela-jarraitzea bera baztertzen. Oinarri indibidualetik sortzen diren arazoak saihestu nahi dituztelako nozioari oinarri kolektibo bat ematen diote eta komunitatearen hizkuntza praktikan oinarritzen dute erregela-jarraitze nozioa. Wittgensteinek sortutako norbanakoaren adimen barnean etengabeko itzulpena geldituko duen mekanismo baten bilaketaren azalpena, ez da azalpen platoniar bat baino egokiagoa, azalpena geldituko duten tresnak ezin direlako bilatu, hau da, azalpena justifikatuko duen tresnarik ezin da aurkitu. Objektibotasuna galtzean norbanakoan oinarritutako erregela-jarraitzea zalan-tzan geratzen da, interpretazioak ez baitu bere kabuz ezer determinatzen. Kripkeren interpretazio eszeptikoa ez dator arazo epistemologikotik, esanahia osatzen duen gertaera bat aurki ezina izatearen egoeratik dator. Horregatik, Kripkeren ustez esanahiari dagozkion materiaren gertaerarik ez dagoen ondorioarekin bizi daitekeela erakutsi nahi du Wittgensteinek. Paradoxa eszeptikoa hitz batekin zerbait esan nahi izatea interpretazio bat ematearen saiakera izan behar den suposamenaren gainean eraikita dago. Suposamen hau erregela-jarraitzearekin bateraezina da, erregela-jarraitzean ez baitzaio norbanakoari justifikaziorik ematen; justifikazio gabe ibiltzeak ez du derrigorrez zuzen ez dabilenik esan nahi. Horrela, norbanakoaren gainetik komunitatearen gainera aldatzen da erregela-jarraitzearen eraiketa eszeptikotasuna gaindituz. Eszeptikotasuna gainditu beharreko eztabaidagai bihurtu eta erantzun desberdinak erakusten ditu Millerrek: bat, Kripkeren soluzio eszeptikoa, norbanakoak beste norbanako batek zuzen dezakeela onartzen du; bi, disposiziozko erantzuna, zuzentasuna eta ariketaren nozioen gainean eraikia dago; hiru, McDowell-en kietismoa, azalpenaren nozioari bidea itxiz, gertakari bat bilatzearen eskaria asetzerik ez dago, deskribapena komunitatearen barnean dagoenarentzat soilik da ulargarria; eta hiru, Wrighten estentsio-determinatze hurbilpena, kietismoa eta paradoxa eszeptikoa ukatuz, hiztunaren intentsioez eta hauen jarraibideez azalpen eraikitzaile bat egitea badagoela defendatuz. Millerrek bosgarren kapitulua bukatzeko soluzio eszeptikori egindako kritikak aurkezten ditu: Boghossianen kritika inkoherentea, Wrighten sasi-

kritika eta Zalabardoren kritika. Azkenekoa da garrantzitsuena, honek erakusten baitu soluzio eszeptikoa argudio eszeptikoaren ganean erortzean ez dela martxan jarri.

Seigarren kapituluari, eszeptikotasunaren besarkada hizkuntzaren esanahiaren ganean eraikita dagoen teoria orotara heltzen dela erakusten du Millerrek. Horregatik egin behar da esanahiaren teoria bat eszeptikotasuna gaindituz. Boghossianen disposizio konplexuaren azalpena disposiziozko lanik serioenetakoak gaitasuna eta ariketa ezberdinduz zeinu baten erabilera okerraren baldintza onartzen du, baina baldintzak deskribatzerakoan azalpen zirkularrean erortzen da. Lewisek disposiziozko azalpena zaildu zuen topoiak sistema oso bateko elkarren arteko erlazioan ez-intentziozko gertakarietan eta gertakari ez-semantikoetan oinarrituz. Baina Boghossianek aipatu moduan, ezinezkoa da analisia egiten hasteko nahikoa den inbentario bat lortzea. Fodorrek Lewisen bidea jarraituz errepresentazio bisualaren eta mendekotasun asimetrikoaren nozioarekin saiakera egiten du, baina ez du zeinu bat oker erabiltzearen nozioa argitzen. Mc Ginnek beste estrategia bat hartzen du normatibotasunaren eta ulertzeko gaitasunaren momentu ezberdinen arteko konparaketa edo berdinketarekin; baina ulermenaren gaitasunen berri eman gabe, bere azalpena bukatu gabe uzten du. Wrigthek esanahia gordetzeko judizioaren mendekoa edo jakintzak erregelatua izatearen nozioarekin eszeptikotasuna saihesten du, jakintzak erregelatzen dituen iritzi onekin egoera primitibo ez-inferentziazkoa eta autoritarioa egunean jartzen da; Boghossianek, esanahiak gertakariak aurre suposatzen dituelako, judizioaren mendeko ezin daitekeela izan esanez Wrigthen posizioen kontra jotzen du. Kapitulu hau Wittgensteinen paradoxaren disoluzioarekin bukatzen du. Wittgensteinek paradoxa eszeptikoaren tesi gorena tratatzen du, paradoxa-aren bidea tratatuz, intuizioaren kontrakoa delako.

Hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko erlazioa argi dezakeen eztabaidari tokia emango dio azken hiru kapituluetan, esaldiaren esanahia edo hiztunaren esanahia oinarritzat izan behar den eztabaidari. Zazpigarren kapituluari hiztunaren esanahia lantzen du Griceren tesiak oso labur eta arin azalduz. Gricek elkarriketaren printzipio eta maxima orokorrekin pragmatikan aro berri baten oinarriak jarri ditu. Horregatik bada ere, Griceren beste nozio gehiago modu sakonago batean azal zitzakeen, hala nola, inplikatura eta inferentzia. Gricek nozio semantikoak asmo eta usteen termino psikologikoetan definitzen ditu. Hitztunaren esanahia intentzioaren bitartez eta esaldiarena hiztunaren esanahiaren bitartez definitzen ditu. Beraz, esaldiaren esanahia intentzioaren terminoetan definitu zuen modu ez-zirkular batean. Searlek ilokuziozko intentzioaren nozioa hiztunaren esanahiaren berri emateko beharrezkotzat hartu zuen, nahiz eta honek azalpen zirkular batera eramaten zuen, Millerren ustez. Plattsen enuntziatu gabeko hizkuntzazko osagaien intentzioa determina ezina da Griceren planteamenduekin. Intentzio hipotetikoaren nozioak ere ez du ezer konpontzen inolako konbentziorik ja-

rraitzen ez duelako; eta Blackburnen entrenamendu erregelak ere ez dira nahiko hizkuntza semantikoki egituraturik dagoelako.

Davidsonen lana aurkezteko erabiltzen du zortzigarren kapitulua, hizkuntzaren esanahia eta adimen edukia elkarren beharrezkoak diren ikuspegia aurkezteko, hain zuzen. Teoria intentsionalak saihestu zituen frogagarriak, sistematikoak eta axiomagarriak ez direlako eta teoria estentsionalen bideari Tarskiren egiaren teoria gehitzen dio. Asegarritasunaren gainean eraikitako egiaren nozioa egokia da egiaren teoria baten eraketarako, baina esanahiaren teoriari egiaren teoriak duen itzulpenaren nozioak zirkulartasunaren arazoa ekartzen dio. Horretaz gain, bibaldintzatzaile materialak osagarritasunaren printzipioa ez betetzea gehitu behar zaio zirkulartasunaren arazoari. Zirkulartasuna ulargarritasunaren printzipioarekin konpontzen du, itzulpena interpretazioaren nozioarekin ordezkatzuz; eta osagarritasunaren arazoa, ulermena modu holistiko batean planteatuz konpontzen du. Millerren aburuz, Quinen azalpenak baino indeterminazio txikiagoa du eta Davidsonena azalpen aberatsagoa da. Hala ere, azalpen hau azkena izatetik oso urrun dago: bate-tik, hizkuntza naturaletik hizkuntza logikorako itzulpenaren eremu asko proposatu gabe daudelako eta bestetik, hizkuntzaren esanahia duen azalpen oro paradoxa eszeptikoaren besarkadapean dagoelako.

Bederatzigarren kapituluan, Millerrek zentzua berreskuratzeke azken saiakera egiten du Dummetten esanahiaren proposamenarekin. Fregerekin hasi eta Dummettekin bukatuz egitura zirkular bat ematen dio zentzuaren gainean eraikitako liburu honi, Dummettek Fregeren zentzuaren nozioa modu handi batean berreskuratzen baitu. Zentzuaren arkitektura metafisikan bukatzen da eta Millerrek metafisikaren eztabaidaren (bere ustez hizkuntzaren filosofiaren diziplinan egon den eztabaidarik garrantzitsuen) nondik norakoak erakusteko sarrera egokia egiten du, «errealismoa VS antierrealismoa» eztabaidaren aurkezpen labur bat deskribatuz. Positibisten jarrera ez-kognitibistarekin hasten da, egi balioarekin eta esanahia egiaztagarri izatearen nozioarekin. Baina Frege-Geach deituriko arazoari positibistek ezin diote erantzun egokirik eman. Ondoren, errealismoa posible ez dela sostengatzen duten hiru arrazoiei Millerrek indarra kentzen die: jabetzaren objekzioa errealistek frogatu beharreko sasiobjekzio bat dela, agerpenaren argudioa Wittgensteinen pasarte eztabaidatu baten gainean dagoela eta erregela-jarraitzetik datorren argudioa judizio mendekotasunean oinarritzen dela esanez. Antierrealisten artean eztabaida handiak sortzen dituzte erabakigarriak ez diren esaldiek, hauek ez baitute kontraesanik ezaren legea betetzen; batzuk logika klasikoaren oinarriak berrikustea beharrezko dela uste izateraino heldu dira. Dummetten ustez, metafisikari buruzko eztabaida garrantzitsu honetan eduki metaforikoak erabiltzen direlako ez du eztabaidak aurrera egiten. Eztabaida hau modu egokian erakusteko Wrighten eskema ez da egokia, diziplina eta sintaxiaren baldintzak edozein diskurtsok bete ditzakeelako. Dummettek errealismoaren markak (transzendenteki egiaztagarria, agindu kognitiboa, rol

kosmologikoa eta judizio independentea) proposatuz amaiera antierrealista edo amaiera errealista baterako eskaintzen duen metodologia ere ez da nahikoa, diskurtso batek ere ez dituelako marka guztiak betetzen eta, aldi berean, diskurtso guztiek betetzen dutelako markaren bat edo beste, amaiera baterako argudio nahikorik eman gabe. Arrazoi hori dela medio, eztabaida sistematiko-tasun gutxiagorekin eraman behar dela defendatzen du Wrightek. Eztabaida honen deskribapena bukatzeko kietismoa erabiltzen du eta metafisikaren eztabaidaz ezer esanguratsua ezin daitekeela esan defendatzen du; eztabaida bi modutara itxi nahi du: zuzenki, egiaren objektibotasuna ukatuz eta diskurtso guztiak judizio mendeakoa direla aldarrikatuz edo zeharka, esanahiaren normatibotasuna galtzeak indar metafisikoa galarazten du. Millerrentzat kietismoa saihesteko modua eta eztabaida bukatzeko bi modu daude: batetik, Wittgensteinen erregela-jarraitzearen nozio argitzea eta bestetik, Dummetten bidetik errealismoaren marken formulazio berri bat egitea.

Liburu hau ikasleentzat egina dagoen arren zentzuaren hariari jarraitzen dio, autoreen erreferentzia askorekin, autoreen arazoak eta beraien arteko eztabaiden funtsezko ideiak erakutsiz, horretarako beharrezkoa delarik autore ezberdinetan oinarritzko ezagutza edukitzea. Irakurlearen aldetik egon daitezkeen gabeziak betetzeko erabilgarria da laburtutako Fregeren printzipioen eranskina, eta erabilgarriago oraindik, ondorengo irakurketak egiteko erreferentziak, kapitulu zein orrialdeen aipamen eta guzti. Liburu honetan zentzuaren haria maisuki jarraitzen da. Zentzua erabiltzen duten teorien birformulatzeak aurkeztutakoak baino sakonagoak direnean esan egiten du. Eta autore bakoitzaren oinarriak argi utzi aurretik zentzuaren haria jarraitzeari lehentasuna ematen dio azalpena konplikatz, zentzuaren eztabaida ulertzeko beharrezkoa dena soilik azaltzen duelarik. Beharbada nozio baten gainean itzulunguruka autore askoren aipamenak eginez ibiltzeak eta espazio mugatua (gaiaren kanpoko arrazoiengatik) izateak oinarrien determinazio faltara eramaten dute Miller. Egin dakioken kritikarik handiena liburu honetan bide propiorik ez urratu izana da. Hala ere, kritika horrek indarra galtzen du, ikasleei zentzuaren inguruko kontuez esan denaren inguruan, modu argian kontu eman nahi duen baldintzatan gauzatua izan bada. Bukatzeko, giza aktibitatearen hipotesi bat egin nahi duenak esanahiaren teoria bat egitea beharrezkoa duela esan behar da. Liburu honetan zentzuaren nozioa aukeratz, da teoria hori egiteko; arkitektura horretan aurki daitezkeen arazoen jabe izateko beharrezko liburu da hau.

Mikel Quintian Iruskiet
ILCLI

gogoa

**Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza,
Komunikazio eta Ekintzari buruzko Aldizkaria**



IV-1 2004ko apirila

aman ta zabal azu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

gogo

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza,
Komunikazio eta Ekintzari buruzko Aldizkaria

IV-1 2004ko apirila

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

Zuzendariak, 7

ITZULPENA

Antoine Arnauld eta Claude Lancelot: *Gramatika orokorra eta arrazoitua [Hainbat zati]*, 9

ZABAL-ZEHATZ BEGIRATUZ

Koldo J. Garai: *Esangura eta metafora: gogoaz eta hizkera figuratuzkoaz gogo
hizkuntzalaritzaren ekarri batzuk*, 21

ARTIKULUAK

Andolin Eguzkitza: *Giza- eta gizarte-zientziak XXI. mendeko Euskal Herrian*, 95

Xabier Itzaina: *Giristinasunetik altermundializaziora:*

ELB Iparraldeko laborari sindikatuaren kasua, 99

Bittor Hidalgo: *Izen ardatz determinatugabeen ondoko erlatiboak euskaraz*, 121

LIBURUEN KRITIKAK

Loretzu Bergouignan: *Memories are made of this.*

The Biological Building Blocks of Memory (Rusiko Bourtchouladze), 175

Enetz Ezenarro: *Philosophy of Mathematics. Structure and Ontology* (Stewart Shapiro), 179

Mikel Quintian: *Philosophy of Language* (Alexander Miller), 185

AURKEZPEN LABURRAK, 193

BERRIAK

Andolin Eguzkitza *GOGO*akidea gogoan, 207

Georg Henrik von Wright gogoan, 209

SPR-03: Semantika, Pragmatika eta Erretorika, 210

KONGRESU, JARDUNALDI ETA IKASTAROAK, 213

Third International Workshop on Semantics, Pragmatics and Rhetoric

List of Participants

Rodrigo Agerri
Dept of Computing
City University
London
au700@soi.city.ac.uk

Aoife Kathleen Ahern
Didáctica de la Lengua y Literatura
Universidad Complutense
Madrid
aoife_k_ahern@yahoo.com

Nomy Arpaly
Philosophy
Brown University
Providence
nomy_arpaly@brown.edu

Xabier Arrazola
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
yipartix@sf.ehu.es

Nicholas Asher
Department of Philosophy
University of Texas at Austin
Austin
nasher@bertril.utexas.edu

Salvatore Attardo
English Department
Youngstown State University
Youngstown
sattardo@cc.yosu.edu

Mixel Aurnague
IKER-CNRS
Baiona
ilxaunm@sc.ehu.es

Luiz Carlos Baptista
Instituto de Filosofia da Linguagem
Universidade nova de Lisboa
Lisboa
lucabaptista@fcsh.unl.pt

Ixiar Bidaola
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
ibibliai@sc.ehu.es

Diane Blakemore
University of Salford
Salford
diane.blakemore1@btinternet.com

Mari Bogatkin - Uusküla
Dialectology
Institute of the Estonian Language
Tallinn
mariuskyla@yahoo.com

Inés Calvo
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
yibcadei@sf.ehu.es

Begoña Carrascal
ILCLI/Logika eta Zientziaren Filosofia
EHU-UPV
Donostia
b.carrascal@ehu.es

Carmen Carretero
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
yibcagoc@sc.ehu.es

Siobhan Chapman
School of English
University of Liverpool
Liverpool
sic@liverpool.ac.uk

Fatoumata Dampah
Department of Psychology
Institute for International Research and Studies
Banjul

Momodou Drammeh
Linguistics
Institute for International research & Studies
Banjul

Tim Fernando
Dept. of Computer Science
Trinity College
Dublin
tfermand@cs.tcd.ie

Koldo J. Garai
Institut d'etudes ibériques et Ibero-Américaines
Bordeaux III "Michel Montaigne"
Bordeaux
KoldoGarai@terpalum.umd.edu

Joana Garmendia Mujika
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
jibgamuj@sc.ehu.es

Ekain Garmendia Mujika
Departamento de Logica, Historia y Filosofia de la
Ciencia
Universitat de Barcelona
Barcelona
ekaingar@hotmail.com

Jule Golkoetxea
Logika eta Zientziaren Filosofia Saila
UPV-EHU
Donostia
julegolkoetxea@terra.es

Jesús González Fisac
Cádiz
jesusgfisac@hotmail.com

Adrian Haefliger
Philosophy
University of Bern
Bern
aditnae@student.unibe.ch

Pello Huizi Petrikorena
Psikologia, ILCLI
EHU-UPV
Donostia
pbbhupep@ss.ehu.es

Julie Hunter
Philosophy
University of Texas at Austin
Austin
jhunter@mail.utexas.edu

Alexis Kalokerinos
Dept. of Language and Literature
University of Crete
Crete
alexis@phl.uoc.gr

Elke Kasimir
Linguistics
University of Potsdam
Potsdam
kasimir@rz.uni-potsdam.de

Manfred Kienpointner
Institut für Sprachen und Literaturen
Universität Innsbruck
Innsbruck
Manfred.Kienpointner@uibk.ac.at

Kepa Korta
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
kkorta@sf.ehu.es

Jesus Mari Larrazabal
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
yjlaani@sf.ehu.es

Lupe Lopetegui Senperena
Ikasketa Klasikoen Saila
EHU-UPV
Gasteiz
ecplosem@vc.ehu.es

Alda Mari
INFRES
CNRS/ENST
Paris
mari@enst.fr

Genoveva Marti
Departament de Logica, LOGOS
ICREA & Universitat de Barcelona
Barcelona
gmarti@ub.edu

Friederike Moltmann
IHPST
Paris
Paris
fmoltmann@univ-paris1.fr

Philippe Muller
Computer Science
Université Paul Sabatier
Toulouse
muller@irit.fr

Marianna Nadeu Rota
English Philology/Linguistics
Universitat de Barcelona (UB)
Barcelona
mnadeu@hotmail.com

Alex Neill
Department of Philosophy
University of Southampton
Southampton
adn1@soton.ac.uk

Susana Olmos Rodriguez
Centre for Language and Communication studies
Trinity College Dublin
Dublin
olmos@tcd.ie

Arantza Ozaeta
Department of Languages
HUHEZI- Mondragon Unibertsitatea
Eskoriatza
arantza_ozaeta@huhezi.edu

John Perry
CSLI
Stanford University
Stanford
john@csli.stanford.edu

Salvador Pons
Dpto. de Filologia Española
Universitat de Valencia
Valencia
salvador.pons@uv.es

Stefano Predelli
Philosophy
University of Nottingham
Nottingham
stefano.predelli@nottingham.ac.uk

Oleg Prozorov
Shteklov Institute of Mathematics
Russian Academy of Science
St. Petersburg
prozorov@pdmi.ras.ru

Mikel Quintian
LSI (Lengoa eta Sistema Informatikoak)
EHU-UPV
Donostia
jibquirm@sc.ehu.es

Elena Redondo Moyano
Ikasketa Klasikoen Saila
EHU-UPV
Gasteiz
elena.redondo@ehu.es

Francisca Snoeck Henkemans
Department of Speech Communication, Argumentation
Theory and Rhetoric
Universiteit van Amsterdam (UVA)
Amsterdam
A.F.SnoeckHenkemans@uva.nl

Rasulu M. Sowe
Institute for International research & Studies
Banjul
iirs@mail.com

Isidora Stojanovic
Philosophy
(CNRS) Institut Jean-Nicod
Paris
isidora@stanford.edu

Urmas Sutrop
Institute of the Estonian Language
Tallinn
Urmas.Sutrop@eki.ee

Giuliano Torrenco
Philosophy
Università del Piemonte Orientale
Torino
giuliano.torrenco@unito.it

Assimakis Tseronis
Centre for Linguistics
University of Leiden
Amsterdam
a.tseronis@let.leidenuniv.nl

Achille Varzi
Department of Philosophy
Columbia University
New York
achille.varzi@columbia.edu

Tony Veale
Computer Science
University College Dublin
Dublin
tony.veale@ucd.ie

Laure Vieu
IRIT-CNRS (Toulouse) & LOA-ISTC-CNR (Trento)
Trento
vieu@irit.fr

Iraia Yetano
Barcelona
iraiayet@hotmail.com

Henk Zeevat
Universiteit van Amsterdam
Amsterdam
henk.zeevat@hum.uva.nl

Larraitz Zubeldia
ILCLI
EHU-UPV
Donostia
ibzuatl@sc.ehu.es

Iker Zulaica Hernandez
Spanish and portuguese
The Ohio State University
Columbus
izulaika@yahoo.es

SPR - 05

Third International Workshop on Semantics, Pragmatics and Rhetoric

Room 1 Chair: Joana Garmendia (Donostia)

1. Mari Bogatkin-Uusküla and Urmas Sutrop (Tallinn), *Are piroos and vörös for red both basic colour terms in Hungarian?*

Room 2 Chair: Ixiar Bidaola (Donostia)

1. Friederike Moltmann (Paris), *Relativized Truth and the First Person*

16:00-16:30 BREAK

- 16:30-17:45 Achille Varzi (Columbia): *Failures, Omissions, and Negative Descriptions*

SATURDAY 12

Chair: Genoveva Martí (Barcelona)

- 9:00-10:15 Diane Blakemore (Salford): *Constraints, concepts and procedures*
- 10:15-11:15 Contributed Papers

Room 1 Chair: Mikel Quintian (Donostia)

1. Aoife Ahern (Madrid) and Susana Olmos (Dublin), *Adversative-concessives in English and Spanish: the procedural semantics of contrast and concession*
2. Javier Gutiérrez-Rexach (Ohio) and Iker Zulaika (Ohio), *Demonstrative Reference In Discourse: The Case Of Spanish*

Room 2 Chair: Ekain Garmendia (Barcelona)


1. Nicholas Asher (Austin) and Julie Hunter (Austin), *A Presuppositional Account of Indexicals*
2. Stefano Predelli (Nottingham), *Hybrid Indexicals and Ellipsis*

11:15-11:45 BREAK

- 11:45-13:00 John Perry (Stanford): *The Anatomy of an Utterance*

13:00 WORKSHOP CLOSING.

13:15 LUNCH



Donostia-San Sebastián - Spain
10-12 November 2005

MAIN TOPICS

1. Meaning and context-sensitivity.
2. Semantics and pragmatics of action.
3. Pragmatics and literature.
4. Rhetoric and conversation.

PROGRAM COMMITTEE

Rodrigo Agerri (London) - Mikel Aumague (Balona)
Kepa Korta (Secretary) - Jesus Mari Larrazabal (Donostia)
Genoveva Martí (Barcelona) - Philippe Muller (Toulouse)
Alex Neill (Southampton) - John Perry (Stanford)
Salvador Pons (Valencia) - Francisca Snoeck Henkemans (Amsterdam)
Isidora Stojanovic (Stanford/Paris) - Henk Zeevat (Amsterdam).

INVITED SPEAKERS

Nicholas Asher (Austin) - Salvatore Attardo (Youngstown)
Diane Blakemore (Salford) - John Echtemendy (Stanford)
Manfred Kienpointner (Innsbruck) - Michel Meyer (Bruxelles)
John Perry (Stanford) - Achille Varzi (Columbia).

TUTORIALS

Salvatore Attardo (Youngstown) - Siobhan Chapman (Liverpool).

Organized by:

- Institute for Logic, Cognition, Language, and Information (ILCLI): University of the Basque Country.

Sponsored by:

- Kutxa Fundazioa
- Eusko Jaurlaritz
- Ministerio de Educación y Ciencia

i

Deadline for contributed papers:
September 30, 2005

Fax: +34 943 017430

E-mail: kepa.korta@ehu.es

<http://www.sc.ehu.es/ilcli>



Unibertsitatea
Eusko Jaurlaritz



gizarte ekintza
obra social

Third International Workshop on Semantics, Pragmatics, and Rhetoric

Program and Timetable

THURSDAY 10

9:00-9:15 Opening Session.

Chair: Kepa Korta (Donostia)

9:15-10:30 Manfred Kienpointner (Innsbruck): *The Case for Core Meaning*

10:30-11:45 Salvatore Attardo (Youngstown): *Fiction and Deception: How Cooperative is Literature?*

11:45-12:00 BREAK

12:00-13:00 TUTORIAL 1

Pragmatics and literature by Siobhan Chapman (Liverpool)

13:00 LUNCH

Chair: Salvador Pons (Valencia)

14:30-15:30 TUTORIAL 1

Pragmatics and literature by Siobhan Chapman (Liverpool)

15:30-16:30 Contributed Papers

Room 1 Chair: Mikel Quintan (Donostia)

1. Assimakis Tseronis (Leiden), *Stance Adverbials in the Formulation of a Standpoint: a Presentational Means for the Management of the Burden of Proof*
2. Alexis Kalokerinos (Rethymnon), *Poeticity From A Cognitive- Linguistic Point Of View, (Not Completely Renouncing Literary Theory)*

Room 2 Chair: Ekain Garmentia (Barcelona)

1. Joana Garmentia (Donostia), *What is said in irony?*
2. Giuliano Torrenco (Torino), *"But You loved me this morning!" Two ways of explaining the role of time in the context of utterance*

16:30-17:00 BREAK

17:00-18:00 Contributed Papers

Room 1 Chair: Joana Garmentia (Donostia)

1. Luiz Carlos Baptista (Lisboa), *Evocative communication*
2. Tony Veale (Dublin), *Figure-Ground reversal in verbal humour*

Room 2 Chair: Larraitz Zubeldia (Donostia)

1. Tim Fernando (Dublin), *'The proper treatment of events' in comics*
2. Oleg Prossorov (St. Petersburg), *Sheep-Theoretic Formal Semantics*

18:00 APPETIZER

FRIDAY 11

Chair: Mixel Aurnague (Baiona)

9:30-10:45 Nicholas Asher (Austin): *Were, Would, Might and a Compositional Account of Counterfactuals*

10:45-11:15 BREAK

11:15-12:30 TUTORIAL 2

Pragmatics and humour by Salvatore Attardo (Youngstown)

13:00 LUNCH

Chair: Isadora Stojanovic (Stanford-Paris)

14:30-15:30 TUTORIAL 2

Pragmatics and humour by Salvatore Attardo (Youngstown)